

Udaltzain langilearen eskubideak.

Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-neurrien plangintza. Enpresariak jarduera hauek garatu eta dokumentatu beharko ditu langilearen segurtasun eta osasuna babesteko.

Langileen ordezkaritza. Langileek lan-arriskuaren prebentzioan parte hartzeko eskubidea daukate Prebentzio-ordezkarien eta Segurtasun eta Osasuneko Batzordeen bidez.

Prestakuntza eta informazioa. Haien lanean dauden arriskuei eta babes- eta prebentzio-neurriei buruz prestatuta eta informatuta izateko eskubidea (dokumentazioa, ikastaroak, hitzaldiak) daukate langileek.

Hur-hurreko arrisku larria. Mota honetako harrikuaren aurrean langileak bere jardura eteteko eta lanpostua uzteko eskubidea dauka, polizia parte hartzen duenean izan ezik.

Osasunaren zaintza. Osasun-egoera aldizka zainduta izateko eskubidea daukate langile guztiek. Zaintza hau borondatezkoa izango da langilearentzat legeek aurreikusten dituzten salbuespen batzuen kasuan izan ezik.

Haurdunak eta arrisku zehatz batzuekiko sentiberak diren langileak. Euren lanpostuak moldatuak izateko edo euren egoeraren araberako neurri bereziak hartuak izateko eskubidea daukate.

Ekipamendu pertsonala eta lan-ekipoak. Egiten ari den lanari eta bere morfologiari egokitutako ekipamendu pertsonala jasotzeko eta segurtasunezko ezaugarri ergonomiko egokiak dituen lan-ekipoa erabiltzeko eskubidea dauka langileak.

Higiene eta ongizatezko instalazioak. Aldage-lak, komuna eta antzekoetako instalazioek espazio, higiene eta tenperatura egokizko balditzatan egon behar dute.



www.fspugt.es

Kontaktatzeko telefono eta helbideak:

Lan-osasuneko Idazkaritza

Batzorde Betearazle Konfederala
Hortaleza Kalea, 88 28004 Madrid
Tfnoa: 915890893
Faxa: 915890953

Toki- eta Autonomia-administrazioko eta ZZ. ZZ.etako Idazkaritza

América Etorbidea, 25 3. Solairua
28002 Madril
Tfnoa: 915897240
Faxa: 915897236

Lan-osasuneko eta Ingurugiroko Idazkaritza

América Etorbidea, 25 3. Solairua
28002 Madril
Tfnoa: 915897232
Faxa: 915897236

Segurtasuna eta osasuna UDALTZAINGOAN Zeuk ere babeserako es- kubidea duzu SEGURTASUNA ETA ERGONOMIA



Con la Financiación de:



mano a
mano
Por tu salud y seguridad



LEGEZKO EGOERA UDALTZAINGOAN

Langile gisa, udaltzainaren osasuna babes-tuta izan behar da bere funtzioen berezitasunak kontuan harturik. Horregatik, berez galarazten duten esku-hartzeen kasuan salbu, beste edozein langilek bezala segurtasun eta osasuneko baldintza egokiak izateko eskubideak dauzka. Baldintza horien artean lanpostua dagoen lekua, ibilgailuak eta erabilitako ekipamenduak, eta abar azpimarra ditzakegu.

Prebenitzeari buruzko Legearen barruan

Poliziak egiten dituen jardueren kopuru bat laneko arriskuak prebenitzeari buruzko legedi orokorrak aurreikusten du; arlo honetan, beste edozein langile ohikotzat hartuta dago udaltzaina eta, zentzu honetan, bere segurtasuna eta osasuna bermatuta egoteko eskubidea dauka.

Prebenitzeari buruzko Legetik kanpo

Egiten dituen beste jarduera batzuk ez daude LAParen araudi orokorraren babespean; hiritarren segurtasuna bermatzeko esku-hartzeak, berez arriskutsuak izan daitezkeenak, dira, funtsean, parte-hartze horiek.

ARRISKUAK.

Segurtasuna

- Bide-istripuak.
- Harrapatzeak.
- Erortzeak, kolpeak, bihurrituak.
- Eraso fisikoak.
- Komunikatzeko ezintasuna.

Ergonomia

- Ekipamendu pertsonal deserosoa.
- Lan-ekipo desegokiak: datuak ikusteko pantailak, lanpostuaren altzariak.
- Ibilgailuen moldapen desegokia.
- Lanaren zama fisikoa.
- Behin eta berriz egiten diren mugimenduek eragindako lesioak.
- Lanpostuan eta ibilgailuan hartutako jarrera okerrak.
- Muturreko tenperatura eta hezetasuna lanpostuan edo kalean.

PREBENITZEKO NEURRIAK.

Segurtasuna

Ibilgailuen mantentze mekaniko egokia. Gidatzea eragozten ez duten uniforme eta ekipamendu pertsonala ematea gidariari. Ibilgailuaren barruan jarritako tresnek ez dute kanpoko ikuspen beharrezkoa oztopatu behar. Gidariaren postuan espazio nahikoa. Trafikoa zuzentzeko edo galtzada publikoan egindako beste edozein esku-hartzerako ikuspen handiko arroparekin eta, gaua denean, elementu argi-adierazleekin hornituta egon behar du poliziak. Oinetakoek zoru irristagaitzak izan beharko ditu.

Edozein larrialdiren aurrean telefonogunearekin komunikatzeko bide bat egon behar da beti poliziaren eskura, igorle baten bitartez edota beste baliabide alternatibo baten bidez.

Ergonomia

Norberaren gorputz-dimentsioetara moldatutako uniforme eta ekipamendu pertsonala. Lanpostuan eta ibilgailuetan ekipamenduak eta espazioak era egokian diseinatzea. Lan neketsuetan eten beharrezkoak programatu behar dira. Behin eta berriz egiten diren mugimenduak eskatzen dituzten lanetan lana hastean eta lanaren erdian luzatze-ariketak egingo dira. Lantokiko tenperatura eta hezetasuna kontrolatuta egongo dira indarrean dauden legeen arabera zehaztutako tarte baten barruan. Hotzerako edo berorako egokitutako laneko arropa kanpoan egiten diren jardueretarako.

Udaltzain langilearen eskubideak.

- **Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-neurrien plangintza.** Enpresariak jarduera hauek garatu eta dokumentatu beharko ditu langilearen segurtasun eta osasuna babesteko.
- **Langileen ordezkartza.** Langileek lan-arriskuen prebentzian parte hartzeko eskubidea daukate Prebentzio-ordezkarien eta Segurtasun eta Osasuneko Batzordeen bidez.
- **Prestakuntza eta informazioa.** Haien lanean dauden arriskuei eta babes- eta prebentzio-neurriei buruz prestatuta eta informatuta izateko eskubidea (dokumentazioa, ikastaroak, hitzaldiak) daukate langileek.
- **Hur-hurreko arrisku larria.** Mota honetako arriskuaren aurrean langileak bere jardura eteteko eta lanpostua uzteko eskubidea dauka, poliziak parte hartzen duenean izan ezik.
- **Osasunaren zaintza.** Osasun-egoera aldizka zainduta izateko eskubidea daukate langile guztiak. Zaintza hau borondatezkoa izango da langilearentzat legeek aurreikusten dituzten salbuespen batzuen kasuan izan ezik.
- **Haurdunak eta arrisku zehatz batzuekiko sentiberak diren langileak.** Euren lanpostuak moldatuak izateko edo euren egoeraren araberrako neurri bereziak hartuak izateko eskubidea daukate.
- **Ekipamendu pertsonala eta lan-ekipoak.** Egiten ari den lanari eta bere morfologiari egokitutako ekipamendu pertsonala jasotzeko eta segurtasunezko ezaugarri ergonomiko egokiak dituen lan-ekipoa erabiltzeko eskubidea dauka langileak.
- **Higiene eta ongizatezko instalazioak.** Aldagela, komuna eta antzekoetako instalazioek espazio, higiene eta tenperatura egokizko baldit-zatan egon behar dute.



www.fspugt.es

Kontaktatzeko telefono eta helbideak:

Lan-osasuneko Idazkaritza

Batzorde Betearazle Konfederala
Hortaleza Kalea, 88 28004 Madrid
Tfnoa: 915890893
Faxa: 915890953

Toki- eta Autonomia-administrazioko eta ZZ. ZZ. etako Idazkaritza

América Etorbidea, 25 3. Solairua
28002 Madril
Tfnoa: 915897240
Faxa: 915897236

Lan-osasuneko eta Ingurugiroko Idazkaritza

América Etorbidea, 25 3. Solairua
28002 Madril
Tfnoa: 915897232
Faxa: 915897236

Segurtasuna eta osasuna UDALTZAIN- GOAN Zeuk ere babeserako eskubidea duzu. HIGIENE ETA PSIKOSOZIOLOGIA



Con la Financiación de:



mano a
mano
Por tu salud y seguridad



LEGEZKO EGOERA

Udaltzaingoan

Langile gisa, udaltzainaren osasuna babestuta izan behar da bere funtzioen berezitasunak kontuan harturik. Horregatik, berez galarazten duten esku-hartzeen kasuan salbu, **beste edozein langilek bezala** segurtasun eta osasuneko baldintza egokiak izateko **eskubideak dauzka**. Baldintza horien artean lanpostua dagoen lekua, ibilgailuak eta erabiltako ekipamenduak, eta abar azpimarra ditzakegu.

Prebenitzeari buruzko Legearen barruan.

Poliziak egiten dituen jardueren kopuru bat laneko arriskuak prebenitzeari buruzko legedi orokorrak aurreikusten du; arlo honetan, beste edozein langile ohikotzat hartuta dago udaltzaina eta, zentzu honetan, bere segurtasuna eta osasuna bermatuta egoteko eskubidea dauka.

Prebenitzeari buruzko Legetik kanpo.

Egiten dituen beste jarduera batzuk ez daude LAParen araudi orokorraren babespean; hiritarren segurtasuna bermatzeko esku-hartzeak, berez arriskutsuak izan daitezkeenak, dira, funtsean, parte-hartze horiek.

ARRISKUAK.

Higiene

- Zulaketek edo ebaketek eragindako kutsuapen biologikoa.
- Hozkadek eragindako infekzioak.
- Inguru osasungaitzekiko esposizioa.

Faktore psikosozialak

Faktore hauen eraginpean egoteak estresa sor dezake eta, egoera hau denboran luzatuz gero, burnout. Estresak gaixotasun fisiko edota mentalak (depresioa, antsietatea...), lanera ez agertzea eta aldi baterako ezintasuna ere bultzatzen ditzake.

Lanaren antolakuntzarekin erlazionatutako estresoreak:

- Gatazka eta rol-ambiguotasuna.
- Lanaldia eta atsedenaldiak.
- Lan-sustapena.
- Argitasun eza aginduetan.
- Txandakako eta gaueko lana.
- Udaltzainaren irudi soziala.
- Pertsona arteko harremanak.
- Laneko indarkeria.
- Sexuan oinarritutako jazarpen moral, sexual eta baztertzaila.

Inguru fisikoko estresoreak:

- Zarata, dardaraketak, iluminazioa, tenperatura, espazio fisikoa.

Zereginaren estresoreak:

- Zama mental desegokia.
- Zereginaren gaineko kontrol eza.

PREBENITZEKO NEURRIAK.

Higiene

- Ibilgailuek larrialdietarako botika-kutxa eduki behar dute.
- Objektu ebakitzaila edo zorrotz maneiatzeko eskularruak erabiliko dira.
- Txertaketa eta medikazio espezifikoa.
- Giro zaratsatu edo osasungaitzetan udaltzainaren osasuna bermatzeko neurketa beharrezkoak egingo dira. Behar denean neurri egokiak hartuko dira, adibidez esposizio-denbora murriztea.

Psikosozialak

- Lanaldian zehar eta lanegun segituen artean atsedean egokirako eskubidea dauka udaltzainak.
- Udaltzainak jasotzen dituen aginduek argiak eta zehatzak izan behar dute agindutako zeregina rol- edo kompetentzia-gatazkarik gabe egin ahal izateko.
- Laneko jazarpena sufrituz gero egoera hori salatzeko eskubidea dauka udaltzainak; sindikatutik eskaintzen dugu beharrezkoa izan daitekeen ahokularitza.
- Bere segurtasun eta osasunari dagokienez lanaren antolakuntzan pertsonalki edo ordezkarien bitartez parte hartzeko eskubidea dauka udaltzainak, bereziki txanden banaketari, ekipamendu pertsonala eta lan-ekipoa aukeratzeari, harreman sozialak hobetzeari, eta abarrari dagokienez.